

Next Generation EU, Europako eredua aldatzen ez duen plana

Europako Batzordeak
proposatutako planak ez
die erantzuten krisi
sanitario, ekonomiko eta
sozialaren ondoren
sortutako beharrei



www.ela.eus

ELA

EUSKAL SINDIKATUA

AURKIBIDEA

Sarrera	3
Aurrekariak.....	3
Next Generation EU.....	4
Next Generation EU-ren balorazioa.....	6
Alternatibak.....	8

1. SARRERA

Hegoaldeko herrialdeetan pandemiaren ondorioetako bat izan da Europar Batasunarekiko bazterte-sentimenduaren areagotzea. Gero eta gehiago dira Europar Batasuna zalantzan jarri dutenak azken hilabete hauetan; izan ere, EB ez da gai izan osasun-materialaren premiei aurre egiteko, horretaz gain iparraldeko herrialdeetako gobernuen elkartasun falta ikusi dugu eta Europako erakundeek emandako erantzuna ere eskasa izan da.

Hori dela eta, maiatzaren amaieran, Europako Batzordeak *Next Generation EU* aurkeztu behar izan zuen. Ekainaren 19an hasi zen eztabaida formala, eta datozen aste eta hilabeteetan jarraituko du. Erabakitakoak markatuko du Batasuneko gobernuak egungo krisiari eman nahi dioten norabidea. Zalantzarik gabe, langileen eguneroko bizitzatik urrun dauden goi-agintarien zirkulu txiki horretan hartzen diren erabakiek hurrengo hamarkadako politika ekonomikoaren norabidea markatuko dute.

Dokumentu honetan Europako Batzordearen proposamena aztertuko da, baita Europako erakundeek (Banku Zentrala, Kontseilua edo Europako Batzordea) aldez aurretik hartu dituzten neurriak ere. Azkenik, ELAk eztabaida honetan defendatzen dituen alternatibak azalduko dira.

2. AURREKARIAK

Joan den maiatzean azaldu genuen bezala "ELAren proposamen politikoa: benetako irteera bat" dokumentuan, Covid-19ak Europa osoan eragindako inpaktuari aurre egiteko EBk ezohiko neurriak planteatu zituen bi norabidetan:

Alde batetik, Europako Banku Zentralak (EBZ) hedapen kuantitatiboko politika gauzatu zuen; edo, bestela esanda, EBZk bankuei diru-kopuru handi bat eman zien interes oso baxuetan edo negatiboetan, ondoren bankuek gobernuari, familiei edo enpresei dirua maileguan eman ziezaieten. Martxoan iragarri zuen Larrialdi Pandemikoko Erosketa Plana (PEPP), 750.000 milioi euroko zenbatekoarekin (aurretik beste 120.000 milioi euro mobilizatu zituen), eta ekainean 600.000 milioitan handitu da. Aipatutako dokumentuan adierazi genuen bezala, politika hau 2008ko krisiaren ondoren jarraitutakoaren jarraipena da, helburu nagusia bankuak salbatzea izanez.

Bestetik, Covid-19aren krisiari aurre egiteko Krisialdi Pandemikoari Laguntzeko Planaren baitan, estatu kideentzako finantzaketa-mekanismoak adostu zituen apirilean Europako Batzordeak. Plan horrek hiru mailegu-programa zituen, guztira 540.000 milioi euroko zenbatekoarekin:

- Egonkortasunerako Europako Mekanismoa (MEDE): herrialdeek eskatzen dituzten kreditu mota batzuk dira, gehienez ere herrialde bakoitzaren BPGren %2ko zenbatekora heltzen direnak, hauek eskuratzeko baldintza-maila altuak bete behar dira. Espainiako finantza-sistema erreskatatzeko mekanismo hori erabili zen.
- Europako Inbertsio Bankua (EIB): Europako ETEen abalak estaltzeko 200.000 milioi euroko zuzkidura duten kreditu-lerroez osatuta dago.
- SURE programa: herrialdeek eskatzen dituzten maileguak dira, langileak eta enplegua babesteko eskemen kostuak finantzatzeko, 100.000 milioi euroko zuzkidurarekin.

Baldintzapeko maileguen politika horrek ere ez dakar aldaketarik azken krisian jarraitutakoarekin alderatuta, zeinak "erreskatatutako" herrialdeetan pobretze orokorra eragin zuen. Finantzaketa-mekanismo horietara jotzen duten gobernuek beren zor publikoa nabarmen handituko dute (2008an zegoena baino askoz handiagoa den testuinguruan), eta doikuntza-politika zorrotzak eta gastu publikoa murrizteko politika zorrotzak aplikatu beharko dituzte maileguei aurre egiteko, haien etorkizuna hipotekatuz. Horrek azaltzen du, adibidez, hasiera batean Espainiako gobernu MEDEren maileguak eskatzearekin desados agertzea.

Covid-19aren ondoren sortutako osasun-, ekonomia- eta gizarte-krisiaren larritasunak agerian utzi zuen neurri gehiago hartzeko premia (testuinguru horretan kokatzen da Next Generation programa). Baina haustura bat dago Europa iparraldeko eta hegoaldeko herrialdeetako gobernuen artean, Holanda eta Italia buru direnak, hurrenez hurren.

3. NEXT GENERATION EU

Europako Batzordeak Batasunaren aurrekontua indartzea proposatu du 2021-2027 aldirako (hau da, 7 urtetarako). Indartze horren barruan kokatzen da *Next Generation EU* plana, 750.000 milioi euroko zuzkidurarekin. Honakoa da proposamena: 500.000 milioi euro transferentzia edo dirulaguntza gisa eta 250.000 milioi mailegu gisa.

Plana bere osotasunean eztabaidatu eta indarrean sartzeko egutegi bat ezarri du Europako Batzordeak. Horren arabera (hau da, kasurik onenean), plana ez litzateke 2021eko urtarrila baino lehen indarrean sartuko (eta ondorioz, data hori baino lehen, gobernu batek ere ez du eurorik jasoko). Uztailean Europako Kontseiluak (uztailaren 17rako eta 18rako deitua) akordio politiko bat lortu beharko luke, baina azken onarpena (Europako Parlamentutik igaro ondoren) ez litzateke abendura arte hartuko.

Proposamenak ez ditu argi uzten funtsezko gai batzuk; hala nola, funtsak ordaintzeko epea. 2021ean jasotzen hastea ontzat eman ez gero, ez dago argi zenbat urtetan ordainduko litzatekeen. Proposamena 2021-2027rako planean badago ere, Batzordeak *Next Generation* planerako argitaratutako txostenek 2021-2024 aldiari baino ez diote erreferentzia egiten. Nolanahi ere, argi dago gobernu bakar batek ere ez duela dirua bat-batean jasoko, urte batzuetan bederen.

Batzordearen proposamenaren arabera, 750.000 milioi euroak programa ezberdinen bidez banatuko liratezke. Aurrekontuko partidarik garrantzitsuenak Berreskuratze eta erresilientzia Mekanismo Europarra izenekoa da, 560.000 milioi hornitua; horietatik 350.000 transferentziak egiteko eta gainerako 250.000 kredituetarako. Proposamenean, Espainiako estatuak 61.618 milioi jasoko lituzke zuzeneko transferentzietan mekanismo honen bidez.


Europako mekanismo hori Europako sei hilekoaren barnean egongo da. Europako sei hilekoa EBean ekonomia- eta aurrekontu-politikak koordinatzeko zikloa da. Urteko lehen sei hilabeteetan (horregatik deitzen da sei hileko) estatuek beren aurrekontu- eta ekonomia-politikak Europar Batasun mailan adostutako helburu eta arauetara egokitzen dituzte. Europar Batasunaren gobernantza ekonomikoaren esparruaren parte da, eta politika ekonomikoak koordinatzeko hiru bloke jasotzen ditu: egiturazko erreformak, aurrekontu-politikak eta desoreka makroekonomikoak. Bere ekintzak Egonkortasun eta Hazkunderako Itunak (PEC gazteleraz) arautzen ditu, eta bera arduratzen da herrialdeek Ituna noraino betetzen duten zaintzeaz eta ebaluatzeaz.

Zer esan nahi du horrek? Estatu kideek planak aurkeztu beharko dituztela funts horiek jasotzeko, eta Europako sei hilekoaren baldintzak bete beharko dituztela. Erantsitako infografian argi ikusten denez, Europako sei hilekoa gobernuen aurrekontu-politiketan esku hartzeko mekanismo bat da. Europar Batasunak eta Europako gainerako gobernuak aplikatzen diren politikak baldintzatzen dituztelako.

Europako sei hilekoa, beraz, kontrolerako beste tresna bat da. Transferentziak eta maileguak Europako sei hilekoan ezarritako baldintzekin banatuko dira. Gainera, laguntzak jasotzeko 27 gobernuak onartu beharko dituzte herrialde bakoitzak proposatutako planak.

Azkenik, *Next Generation EU* programaren finantzaketari dagokionez, Batzordearen proposamenak bide bikoitza planteatzen du:

- Alde batetik, Europar Batasunaren obligazioen jaulkipena (orain arte ez bezala). Gehienez ere 30 urterako bonuak jaulkiko dira.
- Bestetik, Batzordeak gogorarazi du 2018ko maiatzetik zerga berriak sortzea proposatzen ari dela. Oraindik zehaztu gabe badaude ere, kontzeptu hauek zergapetuko liratzek:
 - Karbono-tasa mugan.
 - Isurketen merkataritzarako tasa
 - Tasa digitala
 - Plastikoen gaineko zerga
 - Enpresa handien gaineko zerga



4. NEXT GENERATION EU-REN BALORAZIOA

Europako Batzordeak proposatutako plan berriak aldaketa batzuk ditu azken urteotan ohikoa izan denarekin alderatuta: zorraren zati bat mutualizatzea, Erkidegoko aurrekontua handitzea, funtsen zati bat transferentzien bidez sartzeara (eta ez kredituen bidez) edo zerga berriak ezartzea dira aspektu garrantzitsuenak.

Aldaketa horien arrazoia ez da bat-batean Europar Batasunak norabide neoliberal eta austerizidari buelta eman izana, baizik eta errealitate bikoitz baten ondorioa da: krisi ekonomiko orokorra eta sakontasun handikoa, eta hegoaldeko herrialdeetan Europarekiko baztertze sentimenduaren areagotzea.

Plana baloratzen hasi aurretik, orain ezagutzen dena proposamen bat baino ez dela adierazi behar dugu, eta horren eztabaida, lehen esan dugun bezala, hasi berria dela. Europako Batzordeak onartu behar du, Batasuneko gobernuen aho bateko adostasunarekin, eta baita Europako Parlamentuak ere. Onartzearen aurka agertu dira herrialde batzuk, Herbehereak, Austria, Danimarka eta Suedia, hala nola. Ez datoz bat zenbatekoarekin (750.000 milioi euro zenbateko handiegia iruditzen zaie), transferentzia-maileguren proportzioarekin (kredituen proportzio handiagoa eta subsidioen txikiagoa eskatzen dute), banaketaren baldintzekin (laguntzak jasotzeko baldintza gehiago eskatzen dituzte) eta egutegiarekin eta ordaintzeko epeekin ere desados ageri dira. Beraz, negoziazioa gogorra izango dela aurreikus daiteke, eta aldaketak egoten badira, hauek ez dute proposamena hobetuko, guztiz kontrakoa baizik.

Testuingurua

Konfinamendu-aldia luzatu ahala, aurreikuspen ekonomikoek okerrera egin dute Europar Batasun osoan (eta munduan). Deseskalatze-faseak gorabehera, ez da aurreikustekoa (ezta desiragarria ere) aurreko "normaltasunera" bueltatzea, non sektore ekonomiko guztiek pandemiaren aurretik bezala funtzionatuko luketen.

Bi egoera desberdin marratzen ditu OCDEren (Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea) azken aurreikuspen ekonomikoak, datorren udazkenean Covid-19a berragertu edo ez. Hala ere, bi agertokiek atzeraldi sakona aurreikusten dute, BPG %9 eta %12 artean jaitsiko da eurogunean. Enpleguari dagokionez, uste da 25 eta 35 milioi enplegu artean suntsituko direla Europa osoan. Euroguneako zor publikoa BPGren %105,1 izango litzateke 2020an Nazioarteko Diru Funttsaren arabera, 2019an baino 21 puntu gehiago (BPGren %84,1).

Kopurua ez da nahikoa eta eredia zalantzan jartzea

Aurrekaririk ez duen krisi honek erakunde publikoen erantzun azkar eta sendoa behar du, eta horregatik EBk diru-kopuru handia jarri beharko luke mahai gainean. Baina *Next Generation* planak duen diru kantitatea labur geratzen da. Berreraikuntzaren 0,75 bilioiak motz geratzen dira Europako Parlamentuaren eskatutakoaren (2 bilioiko funtsa) edo Espainiako Estatuko gobernuak eskatutakoaren (1,5 bilioi) aurrean. 2020an Eurogunean aurreikusitako zor publikoaren igoera 2,4 bilioi eurokoa da. 0,75 bilioirekin zulo horren heren bat baino ez litzateke estaliko, kasurik onenean.

Next Generation EU nahikoa ez izateak talka egiten du EBZk banku-sistemari likidezia masiboki txertatzeko politikarekin. Diru hori zuzenean estatu kideen finantzaketara bideratu izan balu, krisiari aurre egiteko nahikoa izango litzateke.

Diru kopuru eskasa izateaz gain, diru hori zertarako erabiliko den zalantza jarri behar da. Diskurtso- eta propaganda-esparrutik haratago, badirudi egungo eredia mantentzen saiatuko

direla, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspegitik egokia ez dena. Batasunaren politiken ardatza izan behar luke ekonomiaren eraldaketa sozial eta ekologikoak; baina tokian tokiko elite ekonomikoen status quoa defendatzen jarraitzen da.

Europako Batzordeko presidentearen esanetan, "Berreraikitze funtsaren laguntzak ekonomiaren modernizazioarekin lotuta egongo dira". Ez du argitu ekonomia modernizatzearen esanahia, baina esperientzia luzea dugu terminologia modernizatzailerik horren aplikazio praktikoan.

Berandu datorren plana eta funtsak noiz banatuko diren jakiteko zalantza handiak dituen

Lehen esan dugun bezala, Plana ez da behin betiko onartuko urtea amaitu baino lehen. Eta funtsak ez dira inolaz ere datorren urteko urtarrila baino lehen banatzen hasiko (gainera, ez dakigu zenbat denbora igaroko den diru guztia banatu arte).

Epe horiek ez datoz bat gobernuek koronabirusak eragindako odolusteari aurre egiteko baliabideak lortzeko duten premiazko behararekin (ERTEen ordainketak, enpresentzako kreditu-lerroak, osasun-sistemako baliabideak, etab). Pandemiak gehien astindu dituen herrialdeek dirua berehala behar dute, eta Europako burokraziak eta Batasuneko gobernuen erabakiak hartzeko prozesuek hori horrela izatea eragozten dute.

Planak baldintza-maila handia du

Plana Europar Batasunaren aukera austerizidaren sakontzean oinarritzen da. Aurreikus daiteke baldintza horiek aurreko hamarkadakoaren desberdinak izango direla (Troika eta beltzezko gizonak ez ditugu ikusiko, eta egia da, halaber, Covid-19aren pandemiaren eta 2008ko krisiaren irakaspenek ondorio batzuk utzi dituztela, krisi horren ondoren gertatutako guztia errepikatzea zailduko duena).

Baina Europako erakundeek eta Batasuneko gobernuek oraindik ere baldintzatzen dute baliabide ekonomikoak jasotzea (transferentzien edo maileguen bidez) doikuntza-politiken aplikaziora eta egiturazko erreforma deiturikoetara, Europako seihilekoan eskatutako baldintzazkotasunari buruzko aipamen esplizituetan agerian geratzen denez. Funts horiek eskuratzen dituzten estatuek hurrengo urteetan Europako Egonkortasun eta Hazkunde Ituna bete beharko dute, eta, horrela, beren politika publikoak baldintzatuko dituzte. Kontrakoa esatea herritarrak engainatu nahi izatea da.

Dirua eskatzen duten herrialdeek ez dute autonomia nahikorik izango baliabideak zertara bideratzen dituzten zehazteko. Eta dirua jaso eta aldeztu aurretik adostutako erreformak egiten ez dituztenek itzuli egin beharko dute jasotako zenbatekoa.

Zor publikoa handitzea

Next Generation EU planak eta aurretik onartutako mailegu-planek Europar Batasuneko gobernuen zor publikoa nabarmen handitzea ekarriko dute. Eta kontuan izan behar da, adierazi dugun bezala, gaur egungo zor publikoaren maila 2008koa baino askoz handiagoa dela.

Gobernuek finantza sektoreari eskatu beharko diote finantzaketa, EBZk ez baitu herrialdeak zuzenean finantzatzeko aukerarik. Egoera zentzugabe honek, finantziario garestitza eragiten du, banku sistemara jotzen duten herrialdeek bankuen interesak ordaindu beharko baitituzte. EBeko herrialdeek 293.000 milioi euro inguru ordaindu zituzten interesetan 2018 urtean, eta 2001. urteaz geroztik 6 bilioi euro eman behar izan dituzte soilik interesetan. Mekanismo maltzur horren helburu bakarra banku-sistemari onura ekartzea da, herritarren kaltetan, eta azkenean langileak gara ondorioak ordaintzen ditugunak.

Gainera, 2008ko krisiaren ostean gertatu zen bezala, zor publikoa igotzea murrizketa berrien atari da.

Zerga berriak

Planaren zatirik handiena bonuen bidez finantzatu bada ere, Batzordeak hainbat zerga sortzea proposatu du, finantziario bidez gisa. Aurrez ikusi dugun bezala, bost zerga proposatu ditu, mugako karbonoaren erabilera zergapetu nahi dutenak (urtean 5.000 eta 14.000 milioi euro artean biltzea espero dute), isurketen sistema europarra handitzea (10.000 euro urtean), tasa digitala (1.300 milioi euro inguru urtean), korporazio handien gaineko zerga (10.000 milioi inguru bilduko lirateke) eta plastikoarentzako zerga (3.000 eta 9.000 milioi euro artean). Kasurik onenean, zerga horien bidez urtean 44.300 milioi euro bilduko lirateke.

Hala ere, hori gutxi zehaztutako proposamen bat baino ez da (duela bi urte egin zena, eta oraindik onartzeko dagoena), eta estatu kideen interes kontrajarriak ditu. Adibidez, tasa digitalak gutxienez %3ko karga ezarri nahi zuen estatu kide bakoitzean, 750 milioi euroko fakturazio globala eta EBren barruan 50 milioi euro baino gehiagoko diru-sarrerak zituzten konpainia digitalen kasuan. Irlandak (Googlek Europarako egoitza bertan du) edo Luxenburgok (Amazonen kontinentean duen egoitza) ez dute inolako asmorik antzeko tasarik onartzeko.

Korporazio handientzako zerga aipatzen bada ere, zerga-oinarria, korporazio obligatuak edo zergaren irismena zehaztu gabe daude. Era berean, ez da zehazten sozietate-zerga edo tasa paralelo bat den. Sozietateen gaineko zergak karga desberdina du herrialde bakoitzean, eta akordio komun bat lortzea zaila da. Plastikoen gaineko zergari dagokionez, plastikoen lobbya osatzen duten enpresak ez daude ados ekimenarekin.

Ez da ahaztu behar EBko zerga-arloko edozein harmonizaziok aho batezko printzipioa izan behar duela eta estatu kide guztiek onartu beharko luketela. Hori dela eta, bereziki zaila da zerga berriak sartzeko akordioa lortzea.

Argi dago Europar Batasunean zerga-erreforma garrantzitsu bati ekin behar zaiola, diru-bilketa nabarmen handitu ahal izateko (ez da hala gertatzen), murrizketa sozialak saihesteko eta sistema fiskal bidezkoago, sozialago eta ekologikoki egokiagoa izan dadin (Europako Batzordearen proposamenean ez da horrelakorik ikusten).

Ondorioak

Next Generation proposamenak ez die erantzunik ematen Covid-19aren ondoren bizi dugun osasun, ekonomia eta gizarte krisiaren ondorioz sortutako beharrei. Arazoen irtenbidea Europako funts horietatik etorriko den itxaropena sortzen ari da. Argi dago hori ez dela horrela izango, ez zenbatekoagatik, ez epeengatik, ez epeen xedeagatik, ezta ekarriko dituzten politiken baldintzengatik ere.

5. Alternatibak

ELA eredia aldatzeko alternatibak planteatzen ari da. Gainera, Europar Batasunaren benetako aurpegia agerian uzteko une egokian gaudela uste dugu.

Ez da berria zenbait posizio ideologikok Batasuna eta haren gobernantza zalantzan jarri izana; aitzitik, EB sortu zenetik mahai gainean jarri nahi izan den eztabaida da, eta are gehiago Maastrichteko Tratua konstituzionalizatzearen bidez norabide neoliberallean sakondu zenean. ELAk bere garaian egindako erreferendumean ezezkoaren aldeko kanpaina egin zuen.

Korporazio handiek (presio lobbyei esker) eta bankuek euren logika neoliberala inposatu zuten, merkatu bakarraren eta moneta batasunaren onurak lortuz. Horren ondorioz, gobernuek subiranotasuna galdu dute, galeren sozializazioa eta bankuen erreskateak eman dira, doikuntzak, erreformak, pribatizazioak eta abar egin dira.

Emaitza ezaguna da: ipar-hegoaren polarizazioa, desberdintasun sozialaren areagotzea, aberastasunaren banaketa bidegabea, zerbitzu publikoen narriadura, etab. Europar Batasunaren beraren konfigurazioak, Europako Batzordearen gidalerroak eta kontrolak helburu bakarra dute, eliteen eta botere oligarkikoen interesen defentsa, hain zuzen.

Beraz, ez du ematen Europar Batasunaren norabidea aldatuko denik, ereduak bat egiten baitu gizartean ematen ari den emaitzekin.

Baina argi dago alternatiba bat behar dela, maiatzean aurkeztutako "benetako irteera bat" dokumentuan jasotzen den bezala. Aldaketak norabide honetan joan behar du:

- Europako Banku Zentralak gobernuen zuzeneko finantzaketa baimentzea. Horrek Tratatuaren 123. artikulua indargabetzea dakar, berariaz debekatzen baitu aukera hori.
- Europako esparruan eta estatu bakoitzean konstituzionalizatu nahi izan den aurrekontu-esparrua haustea: defizitaren, zor publikoaren edo gastu-arauaren mugak amaitzea; MEDE bezalako programen bidez ezartzen diren Europar Batasunaren zaintza- eta kontrol-mekanismoak ezabatzea; atzera egitea Konstituzioaren 135. artikulua eta horren ondoriozko aurrekontu- eta finantza-egonkortasunari buruzko legeen erreforman.
- Europako politiken baldintzazkotasuna ezabatzea Gobernuei helarazten zaizkien funts europarrek (kredituen edo transferentzien bidez) ez dute inolako baldintzarik izan behar lan- edo gizarte-eskubideak murrizteko, ezta aurrekontu-austeritateko politikak aplikatzeko ere.
- Zor publikoaren auditoretza, ordainketa atzeratzea eta legitimoa ez den zatia kitzatzea. Esan dugun bezala, krisi hau Europar Batasuneko zor publikoa oso handia den testuinguruan kokatzen da. Neurri handi batean, 2008ko krisiaren ondoren bankuak erreskatatu eta kapital-zergak murrizteak, zorra ordaintzearen lehentasuna gizarte-premien estalduraren gaitetik ezartzea ekarri baitzuen. Zorra ikuskatzeko prozesu herritar bat egin behar da, zorraren ordainketaren luzamendutik abiatuta, eta erakundeek konpromisoa hartu behar dute legez kontraktatzat jotzen den zorraren zatia ez ordaintzeko.
- Covid tasa Krisiaren kostu ekonomikoak, funtsean, errenta handienengatik, enpresengatik eta kapitalagatik ordaindu beharreko zergen gehikuntza baten bidez ordaintzea, aurrekontu publikoak nabarmen handitzea ahalbidetzeko. Saihestu egin behar da defizit publikoaren igoerak gerora egiturazko doikuntzak ekartzea. Horrek zerga-politikaren erabateko aldaketa dakar. Kapitalen mugimenduei ere zerga gogor bat ezarri behar zaie.
- Paradis fiskalak eraistea Paradisu fiskalak ez daude soilik paradisu uharteetan, horietako batzuk Europar Batasunaren barruan aurki ditzakegu. Batzordearen proposamen bakar bat ere ez da hauek desegiteari buruzkoa. Tax Justice Network enpresak egindako ikerketa baten arabera, AEBetako enpresek 25.000 milioi euro inguru ordaintzeari uzten diote urtero zerga korporatiboetan, Luxenburgo, Irlanda eta Herbehereak bezalako paradisu fiskalen bidez. Eta, ihes fiskalari dagokionez, Richard Murphy Londresko Unibertsitateko irakaslearen "arrakala fiskala Europan" txostenaren arabera (txosten hori EBk berak onartu zuen), urtero bilioi bat euro inguru sartzen dira Europan modu horretan (Espainian, urteko ihes fiskala 60.000

milioi eurokoa da, 2008ko krisian bankuei egindako erreskatearen zenbateko bera). Beharrezkoa da paradisu fiskalak erabat desegitea eta zerga-ihesa gehiago kontrolatzea. Ikusi berri ditugun zifra horiek nabarmen gaitzen dute, urte bakar batean, *Next Generation EU* berreraikuntza-funtsera bideratutako zenbateko osoa, funts hori gauzatzea erabakiko den urteetarako.



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA